



Etxe galdua

Gerra zibila bukatu eta zazpi urtera egoera oso larria da Libian. Estatua ez ezik, herria ere galdu dute libiarrek.



Karlos Zurutuza
@karloszurutuza



Ez Tunisiak, ez Egiptok ezta Siriak ere ez zuten hainbeste ordu bereganatu 2011ko albistegietan. Urte luzez itxita egon zen herrialdea erditik zatitzen ikusi genuen, eta *Prime Time*-ean: *Mad Maxen* itxura zuten matxino andana batak "Jainkoa da handiena" oihukatzen zuten; lubakia-
ren beste aldean, komikietako bilau bat. Telebistarako entretenimendu hutsa zen hura.

Errealitatearen lehen zaplastekoak Tripoli erori eta berehala jaso genituen: beltzen uxaldiak –denak "Gaddafiren mertzenarioak" omen ziren– edota Gaddafiren jarraitzaileenak. NATOren bonbardaketak ere ezin ahaztu. Ustezko iraultza haren baieztapen ofiziala, gerra amaiera irudikatu behar zuen agerraldian jaso genuen: gobernu berriak aztertuko zuten lehen neurria zera zen, poligamia arautzen zuena. Gaddafiren garaian legezkoa zen, baina emazteak sinatutako baimena behar zuten senarrak bigarren aldiz ezkondu ahal izateko. Trantsizio Gobernuko buru Mahmud Jibrilek argitu zuen neurria: handik aurrera ez zen ezinbestekoa izango

emaztearen adostasuna bigarren edo hirugarren bat etxera eraman ahal izateko. Libia berriaren agintari berriak Tripoliko gaztelu gorriko balkoitik bota zuten "perla" hura, herrialdearen edota gizarte zibilaren berreraikitzea aipatu aurretik. Egun gutxira Gaddafiren lintxamendu basatia ikusi genuen, ia zuzenean. Eta horrela bukatu zen Libiako gerra hura telebistan.


2012an Libiako lehen hauteskunde orokorrak antolatatu zituzten. Egipton edota Tunisian ez bezala, islamistak ez ziren nagusi izan; oraindik bazen itxaropen izpi bat. Tamalez, antzinako entelekia hura bilakatzen hasia zen Libia ordurako, eta aldi behin baino ez ziren iristen nahasiak bezain ulertezinak ziren irudiak: Bengasiko AEBetako kontsulatua sutan 2012an, Tripoliko aireportua sutan 2014an, libiar kalifa herriaren hiriburua sutan 2016an... Horiek denak, eta Saharaz hegoaldekoak. Mordo bat. Libia Europara datozen migrazioaile eta errefuxiatuen azken geltokia dela jakitearekin konformatzen bazarete, irakurketa hementxe utz dezakezue.

Nazio-estatutik, estaturik gabeko naziora

2014an herrialdeko bigarren hauteskundeak egin ziren, baina herria etsita zegoen ordurako, eta erroldaren %18ak besterik ez zuten bozka eman. Nazio Ba-

tuek (NBE) ontzat jo zuten irregulartasunez jositako prozesua, baina Libiako agintea bitan zatitu zen: Tripolin, mendebaldean, gobernu bat sortu zen, eta ekialdean, Tobruk hirian, beste bat. Turkiak eta Qatarrek Tripolikia babestu zuten; Arabiar Emirerri Batuak, Egipto, Frantzia eta Saudi Arabia Tobruken aldean jarri ziren, baita Gaddafiren jarraitzaile ohiak ere. Bi exekutiboen arteko gerturatzeara ez lortzeaz gain, Nazio Batuen eskuhartzeak pozoitu egin zuen giroa.

2015eko udazkenean filtratuko e-posta batzuk argitaratu zituen *The Guardian* egunkari ingelesak. Haietako batean, NBEko Libiarako bitartekari Bernardino Leonek Arabiar Emirerri Batuetako atzerri ministroari: proposatu zion Tripoliko Gobernuari "zilegitasuna kentzeko" bide bat. Beste e-posta batean, Leonek kezka helarazi zion: Emirerria Libiara bidaltzen ari zen armak zirela-eta –Nazio Batuen arma enbargoa oraindik indarrean zegoen–, Leonek ez zuen hura justifikatzeko modurik aurkitu bere kideen aurrean. Bere postuari dagokion bitartekaritza lana egin baino, gobernu bakar batentzat ari zen lanean Leon. Oso agerikoa zen tripoliarrek espainiarri zioten gorrotoa. Asmo maltzur horiek zabaldu zirenean, diplomatikoak Dubaira jo zuten. Egun, hango Eskola Diplomatikoaren burua da eta 50.000 euroko soldata du hilean, *The Guardian* dicit.



Nazioarteko prentsaren isiltasun konplizea batetik, eta Parisko 2015eko atentatua bestetik, “Leongate” kasua estali eta desagerrarazi egin zen. Hori gutxi ez, eta espainiarrak abian jarritako planari eutsi egin zioten: 2016ko martxoan lehorreratu zen Tripolin Fayez al Serraj lehen ministroaren exekutibo berria, Libiako hirugarrena. Itsasotik iritsi eta armadaren base zahar batean instalatu ziren. Ez zen hauteskunderik deitu orainoan baina, hala ere, Nazio Batuek Libiako “governu legitimo bakartzat” jo zuten. Tripolin iraun ahal izateko, Serraj-ek Rada izeneko milizia salafista indartsua antolatu zuen soldatapean. Horien azken ekintzetako batean, Tripoliko Komiki Feriaren hainbat antolatzaile atxilotu zuten, “erlijioa ahuldu eta atzerriko tradizioekiko lilura transmititzegatik”. Talde islamista guztien miliziak erosteaz gain, giza trafikoaren

mafia handiak gobernu berriaren aterki azpian babestu ziren. Azken hauetatik atera dira egungo Libiako kostazainak.

Tobrukekoa dugu NBek babesturiko gobernuaren etsai nagusia. Gaddafiaren jarraitzaileena, Frantzia, Saudi Arabia eta Errusiaren hauspoak batu dituen erakundea Jalifa Haftar jeneralaren etxea ere bada. Gaddafi gobernura iristen lagundu ostean, AEBetara jo zuen militarrik. Virginian hogeit urte eman zituen eta, denbora tarte horretan, CIAk erreklutatu zuen. Bere nagusi berriek agindu bezala, Haftarrek bat egin zuen 2011ko altxamenduarekin. Jaioterrira itzultzean “Libiako Armadaren Agintari Nagusia” titulua eman zion bere buruari. Haftar behin baino gehiagotan elkartu da Errusiako atzerri ministro Sergey Lavrov-ekin, eta Egiptoko presidente eta jeneral Abdelfatah Al-Sisi ere laguna du. Horregatik askotan aipatu izan da, litekeena

dela Libiako konponbidea “egiptoar erara” ikustea, estatu-kolpea alegia.

Game of Thrones telesailaren zaleak ez zaretenek bitan, ala hirutan, irakurri beharko dituzue azken paragrafo biak. Fikzio arrakastatsua da, ziurrenik, modurik errazena Libiako Estatuaren desagertze prozesua ulertu ahal izateko.

Herri bat, hamaika tribu

Estatu porrotak sortutako identitate krisia saihestu nahian, libiarrak tribalismoan babestu dira. Faraj Njem libiar historiagilearen arabera, 140 tribu daude Libian eta aliantza sareak Magreb osotik zabaltzen dira. Egia da Tripoli bezalako hiri-guneetan apalagoa dela hauen indarra, baina asko dira kanpoaldetik hiriburura joandako familiak. Funtsean, zure etxean pisu txikiko aldagaia izan daiteke tribuarena, baina jakin badakizu bizilagunak ez duela horrela bizi. Irak eta Siriako xiita eta suniten arteko gako sektarioek ez dute egoera ulertzen laguntzen. Libia askoz konplexuagoa da. Herrialdea sortu zenetik, tribuen arteko oreka bilatu behar izan dute gobernatu ahal izateko; halaxe egin zuten italiarrek (1911-1943), Idris erregeak (1951-1969) baita Gaddafik (1969-2011) ere. Arazo nagusia zera da egun, denak armaz josita daudela.

2016ko irailean, Genevan izandako ekitaldi batean, Libiako orduko NBEko arduradun Martin Koblerrek datu esanguratsu bezain kezagarria eman zuen: Libian 26 bat milioi arma zeuden, biztanleko lau baino gehiago.

Zaila da esaten tribalismoaren fenomeno nazio sentimenduarekin bateragarria den, baina ezin da ukatu identitatearen ezaugarri handia izan ohi dela Libian. Gainera, ez gara narratiba monolitikoaz ari: Gaddafi osteko Libian, hain zuzen, “islam, “iraultza” edota “arabiar nazioa” bezalako elementu berriak erraz txerta daitezke klanen idearioetan. Tribuak “arazo nahiz konponbiderako eragileak” direla dio Kemal Abdallak, Libian aditu handienetako batek. Ikerlariaren aburuz, klanen arteko interakzioak aliantza sendotetan oinarritzen dira, eta horren froga argia dugu Pierre Rondot jeneral frantziarrak 1955ean egindako mapa. Dokumentua hain da zehatza egundaino iraun duen aliantza sarea jasotzen duela. 2014an sortutako Tripoli eta Tobrukeko arteko haustura erraz aurreikus zitekeen mapa horretan.



ARGAZKIA: AFP

Eguneroko amesgaiztoa

Segurtasun ezaz gain, itomen ekonomiko ere bada Libian. 2011n euroaren pare zegoen libiar dinarra; egun, euroko zortzi dinar lor daitezke merkatu beltzean. Banketxeetan ez dago kapital likidorik eta, *korralitoari* aurre egitearren, gobernu bakoitzak inflazioa areagotu duten hainbat neurri bultzatu dute, besteak beste, dirua inprimatzea. 2017an Tripoliko gobernu berriak Erresuma Batuan ekoiztutako dirua erabiltzen zuen; Tobrukek, aldiz, Errusiatik ekarritakoa. Billete berdinak ziren, eta Libiako Banketxe Zentraleko zuzendariaren sinadura besterik ez zen aldatzen, ekialdean eta mendebaldean desberdina baita arduradun nagusia. Horrela, ekialdeko billeteak ez ziren mendebaldean onartzen, eta alderantziz.

Ekonomiaren gainbehera, alabaina, uste baino gaitzagoa da. 1960ko hamarkadaz geroztik, petrolioarena da Libiako industria bakarra. Idris erregearen agindupean, gobernu lanemaile nagusi bilakatu zen, eta honek

herrialdeko eredu ekonomikoan errentismoa errotu zuen. Gaddafik erabat ustela zen egitura hura purgatu eta bere jendea sartu zuen, baina garapen eredu berari eutsiz aldi berean. Libiak Afrikako petrolio erreserba handienak ditu eta sei milioira iristen ez den populazio txikia; horixe zen, hain juxtu, libiar “mirari ekonomikoaren” sekretua. Datu ofizialen arabera (gerraren aurretikoak), Libiako ordaindupeko langileen %85ak sektore publikoan dihardu. Azken turistak aspaldi desagertu arren, egun ere makina bat dira hilero soldata kobratzen duten gida turistikoak. Nolanahi, trenbide sailarena dugu, zailtzarik gabe, errentismo gaiztoaren kasurik esanguratsuen. Libiako Nazio Trenbide Organoko 800 langileek denetarik daukate: egoitzak, uniformeak, liburuxka korporatiboak... Trena besterik ez zaie falta.

Benetako azpiegiturak ez daude askoz egoera hobean. Etengabeko liskarrek biziki oztopatu dute berauen berreraitzea. Hori batetik eta, atzerriko

inbertsoreen ihesa bestetik, herrialdeak ezin du krisia garaitu eta ekonomikoki hazten hasi. Azken zazpi urteotan hamaika taldek petrolio portuak nahiz findegiak hartu dituzte mendean haien etekinak eskuratzearen, ala besteak beste, mozteko. Eta gauza bera gertatu ohi da industriarako ezinbestekoa den elektrizitate hornikuntzarekin. Garraio sarea ere desagertzen hasia da: mantentzeko gabeko errepideak etengabe blokeatzen dituzte miliziek, eta Libiako aireportu nagusia, Tripolikoa, 2014an txikitu egin zuten. Gaur, hiriburuko aireportu militar bat erabiltzen da haren orde, baina fakzioek etengabe eraso egiten diote. Oinarrizkoena den horniketara, urarenak, ez du hondamendia saihestu. Basamortu azpiko akuiferoetako ura ustiatzeko eraiki zen Ibai Handi Artifiziala talde guztien presio tresna bilakatu da. Gobernuetako bat paretaren kontra jartzeko modua oso erraza da: hegoaldeko basamortuan kanila itxi eta urik gabe uzten dute kostaldea maiz. Urik ere ez.



ARGAZKIA: KARLOS ZURUTUZA

“Beste” libiarrak: amazigak eta tubuak

Mairuak gara behelaino artean? (Pamiela, 2010) liburuan, Joseba Sarrionandiak dio Magrebeko estatuak “berberofoboak” direla, “partikularki amazig jendetza handiak dituzten Aljeria eta Maroko”. Libian askoz kopuru txikiagoaz ari gara –populazioaren %10aren bueltan–, baina Gaddafiren espetxeak amazig preso politikoz josita zeuden. Gaddafiren 1973ko “kultur iraultza” zela eta, bere liburu berdearekin bat ez zetorren ale oro debekatu eta deuseztatu zuen. Amazig hitzak “gizon askea” esan nahi du, literalki, baina agintari gorenarentzat “Satanasen semeak” besterik ez ziren, edota “Libia zatitzeko kolonialismoaren tresna hutsa”. Gauzak honela, amazigek altxamenduarekin bat egiteak 2011n ez zuen inor ustekabeen harrapatu.

Oposizioarekin bat egin arren, amazigek harremanak etetea erabaki zuten 2011ko abuztuan. Orduko beren agintari Fathi Ben Khalifaren hitzetan, “arabiar nazionalisten eta islamisten arteko borroka da hau, eta ez bata ez besteak ez du adierazi gu onartzeko asmorik”. Amazig Kontseilu Gorenak 2011ko irailean

ekin zion bere ibilbideari. Hizkuntza aldarrikapena izan zen bere lehen eskaera. Aldi berean, lehen herri kontseiluak eratu ziren, eta Zuara (kostaldeko amazig enklabea) izan zen udalbatza era demokratikoan hautatu zuen Libiako lehen herria.

Tuarega arabiarra ez den beste herrietako bat da Libian. Euren artean oraindik batasuna lortu ez arren, gero eta estuagoak dira amazigekin dituzten harremanak. Azken finean, hizkuntza amankomuna dute, eta haietako askok diote “basamortuko amazigak” besterik ez direla tuaregak. Tubuak dira azken hauen bizilagunak Libia hegoaldean, Txad eta Nigerreko mugek ere erdibitzen dute tubuen lurralde idorra (Afrikako zonalderik lehorrena). Saharaz hegoaldeko herri honek erreprezio bortitza pairatu zuen Gaddafik boterean eman zituen lau hamarkadetan: lur onenak (oasiak) kendu eta arabiar kolonoei eman zizkien agintari ohiak; eskola eta ospitalerik gabe utzi zituen eta, hainbatetan, beren herri xumeak airetik bonbardatu zituen Gaddafik. Tubu Kontseilu Gorena da euren erakunde nagusia egun, eta agenda bateratua adostu dute amazigekin. ■